

Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroaren Erregelamendua onesten duena (BAO Uztailaren 6koa)

Orain dela gutxi 2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzkoa, onetsi izanak berrikuntza berezia ekarri du erregistro administratibo horrek orain arte zeukan arauketan, hari buruzko lehenengo arauketa eskusibo eta espezifikoa baita. Ordura arte, lotura berezia zuenez Ondasun Higiezin gaineko Zergarekin, zerga horren zerga-oinarriaren bidez, eta zerga horretarako beharrezkoa zenez ondasun higiezin katastro-balioa aplikatzea, Katastroaren araubidea arau fiskal baten bidez eratuta zegoen, alegia, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren bidez.

Gainera, Higiezin Foru Katastroa berritu eta berrantolatzeko ekimen berritzaile hori osatzeko, katastro-balioen txosten berriak onartzeko prozedura izapidetu du Bizkaiko Foru Aldundiak - hasieran, hiri- eta landa-ondasun higiezinentzat-, arlo horretan duen eskumen eskusiboa erabiliz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalekin lankidetzan.

2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak, modu kontinuitatean, aurreko araudiaren funtsezko zatia jasotzen du, baina araudi hori sistematizatzeko eta osatzeko ahalegina egin da eta, gainera, berrikuntza kontzeptual garrantzitsuak ere badakartza, Higiezin Katastroa, katastroko elementua edo ezaugarri bereziko ondasun higiezinak definitzen dira eta. Antolaketa arloko berrikuntzak ere badaude, Katastroa kudeatzeko, esaterako, katastroko aldaketak deklaratu, komunikatu eta erregularizatzeko prozedurak arautzen dira, bai eta desadostasunak ongi etorritu eta zuzentzeko prozedura zein Katastroa eguneratzekoa ere. Katastro-balioei dagokienez, haiek zehazteko irizpideak eta prozedura finkatzen dira; baliook zehazteko, bada, dagokion balio-txostena onetsi eta aplikatuko da.

Foru arauan bertan sarritan aipatzen da zenbait gauza erregelamendu bidez garatuko direla; beraz, ezinbestekoa zen helburu horretarako arau bat ematea, besteak beste, hauetarako: finkatzeko zer baldintzarekin zehaztu behar diren katastroko kartografia prestatu eta kudeatzeko udalekin sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenak, katastroko elementu bakoitza identifikatzen duen katastroko erreferentzia definitzeko, katastroko aldaketak komunikatzeko zer epe dagoen finkatzeko, zehazteko desadostasunak ongi etorritu eskabideak izapidetzeko ez onartzeko dagoen tolerantzia teknikoaren marjina eta, azkenik, arauan jasotzen diren gainerako prozeduren arauketa osatzeko.

Erregelamendu hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren lehenengo azken xedapenean arau hori garatzeko jasotzen den baimena erabiliz ematen da, eta 23 artikulua ditu, atariko tituluan eta beste titulu bitan banatuta.

Atariko tituluak Higiezin Foru Katastroa definitzen du eta I. tituluak, berriz, katastroko erreferentzia, katastroko elementuak definitzen dituen neurrian; halaber definitzen dira erreferentzia hori esleitzeko arauak.

I. tituluan gai teknikoak biltzen dira, esaterako, katastroko erreferentzia, katastroko elementuak definitzen dituen neurrian, bai eta erreferentzia hori esleitzeko arauak ere. Halaber jasotzen dira titulu horretan ondasun higiezin identifikatzailea, batetik, eta pro indiviso dauden trastelekuak eta apartalekuak ondasun higiezin independentetzat jotzeko baldintzak, bestetik.

II. titulua, katastroaren kudeaketaren ingurukoa, lau kapitulutan banatu da. Esan bezala, katastroaren kudeaketari lotutako guztia aztertzen da titulu horretan, hala nola katastroko

aldaketak deklaratzeko prozeduraren diseinua, katastroko aldaketak komunikatzeko prozedura (udalek duten komunikatzeko betebeharra eta notarioek eta jabetza-erregistratzaileek dutena barne), desadostasunak ongitzeko eta zuzentzeko prozedurak (haien barruan tolerantzia teknikoaren marjina definitzen da, eta hura kalkulatzeko formula finkatu), balio-txostenak prestatzeko eta onesteko prozedura, eta katastro-balioen esleipen eta zehaztapen indibidualizaturako prozedura eta jakinarazpena.

IV. kapitulua balioztatzeari eta balio-txostenak prestatzeko eta onesteko prozedurari buruzkoa da. Bertan, kide anitzeko organo bat jasotzen da, Partaidetza Organoa, zeinaren bidez gauzatuko den ukitutako udalek prozedura honetan zehar izango duten parte hartzea.

Higiezin Foru Katastroa mende dagoen zuzendaritza nagusia da haiek onartzeko eskumena duen organoa.

Azkenik, katastro-balioen esleipen eta zehaztapen indibidualizaturako prozedura eta jakinarazpena aztertzen dira.

Azken horren barruan, bereizten da zer titular dauden jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez jasotzera behartuta eta zeinentzat den eskubidea jakinarazpena hala jasotzea.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2016ko ekainaren 28ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau.

XEDATZEN DA:

Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroaren Erregelamendua onestea.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroaren Erregelamendua onesten da, eta foru-dekretu honi eranskin legez batzen zaio.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko dira hauek: 1990eko maiatzaren 22ko 77/1990 Foru Dekretua (zeinak Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko katastroaren kudeaketarako behin-behineko arauak onesten dituen); Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko otsailaren 24ko 23/2015 Foru Dekretua (zeinaren bidez eraikuntza berriak deklaratzeko prozedura arautzen da eraikuntza horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroan inskribatzeko, eta eguneratu egiten den ondasun higiezinak aldatzeko deklarazioetan aurkeztu beharreko dokumentazioa); eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko ekainaren 7ko 105/2016 Foru Dekretua (zeinaren bidez ezartzen den norik izango duen eskumena Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako hiri- eta landa-ondasun higiezin katastro-balioen txostenak onesteko).

Halaber, indargabetuta geratuko dira foru-dekretu honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta ordutik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Garapena.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru-dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

ERANSKINA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO HIGIEZINEN FORU KATASTROAREN ERREGELAMENDUA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Higiezinaren Foru Katastroa.

Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezinaren erregistro administratibo bat da, Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dagoena, eta hiri- eta landa- ondasun higiezinaren zein ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren zenbait datuekin osatzen dena; ondasun higiezin horien ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoak jasoko dira katastroan, bai eta ondasun higiezin bakoitzaren identifikazio-kode bakarra eta haren katastroko elementuen erreferentziak ere. Higiezinak Jabetza Erregistroarekin koordinatzen direnean, inguruabar hori ere jasoko da, ondasunon erregistroko kodearekin batera.

I. TITULUA ONDASUN HIGIEZINAK

I. KAPITULUA ONDASUN HIGIEZINAREN IDENTIFIKATZAILEA ETA KATASTROKO ERREFERENTZIAK

2. artikulua. Ondasun higiezinaren identifikatzailea.

Ondasun higiezinaren identifikatzaileak ondasun higiezin bakoitza osatzen duten katastroko elementu guztiak bilduko ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Katastroan inskripzioa egitean esleituko da ondasun higiezinaren identifikatzailea, eta 16 posizioko erreferentzia bat izango da, identifikazio-kode hauek osatuko dutena: udalerriaren identifikazio-kodeak (3 posizio), udalerriko poligono bakoitzarenak (4 posizio), kasuan kasuko poligonoaren barruko partzelarenak (5 posizio) eta 4 posizioko beste kode bat, ondasun higiezin bakoitzaren barruan dauden elementuak biltzeko aukera emango duena.

Ondasun higiezin bati inoiz ere ezin izango zaio esleitu lehenago beste bati egokitu zitzaion identifikatzaile bat.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak, gainera, erreferentzia berezi bat izango dute, erregelamendu honen 5 bis artikuluan 5. apartatuan azaltzen dena.

3. artikulua. Partzela, azpipartzela eta katastroko eraikuntzaren erreferentzia.

Katastroko partzelak identifikatzeko, 12 posizioko erreferentzia bat erabiliko da, identifikazio-kode hauek osatuko dutena: udalerriaren identifikazio-kodeak (3 posizio), udalerriko poligono bakoitzarenak (4 posizio) eta partzela bakoitza bere poligonoaren barruan identifikatzeko 5 posizioko kode batek.

Katastroko partzelak azpipartzeletan zatitu ahal izango dira, kokatuta dauden lurzoruen izaeraren arabera edo haren erabileraren arabera.

Azpipartzelen katastroko erreferentziak 14 posizio izango ditu; hain zuzen, kokatuta dauden partzelako erreferentziari 2 posizio gehituko zaizkio.

Eraikuntzak identifikatzeko, 17 posizioko erreferentzia bat erabiliko da, eraikuntza dagoen azpipartzelari 3 posizio gehituz osatuko dena.

4. artikulua. Katastroko elementuaren erreferentzia.

Katastroko elementua identifikatzen duen katastroko erreferentzia bakar eta iraunkorra (Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatzen da) 9 posizioko kode bat izango da, oro har, zeinari zenbaki finkoa izena emango baitzaio.

4 bis artikulua. Katastroko erreferentziak esleitzeko arauak.

Katastroko erreferentziak zehazten diren kasuetan, erregela hauek jarraituz esleituko dira:

- a) Eraikuntza berrien inskripzioa: erreferentzia berri bat emango zaio katastroko elementu bakoitzari, eta baja emango zaie eraikin berria egin deneko elementuari edo elementuei. Jabetza horizontalaren araubidearen pean dauden elementu komunek katastroko erreferentzia izango dute, erkidegoaren azpiegituraren funtsezko zati direnean izan ezik.
- b) Ondasun higiezinaren zatiketa edo elkarketa: baja emango zaie zatitu edo elkartutako katastroko elementuen erreferentziei, eta erreferentzia berri bana esleituko zaie ondorioz sortutako elementuei.
- c) Ondasun higiezinaren banantzea: mantendu egingo da jatorriko katastroko elementuaren erreferentzia, eta berri bana esleituko zaie banandutako elementuei”.
- d) Higiezinaren gehikuntza: gehikuntza egin zaion katastroko osagaiaren erreferentzia mantenduko da.

Oro har, ez dira esleituko beste ondasun higiezin, elementu edo katastro-entitate batzuenak izan diren katastroko erreferentziak.

II. KAPITULUA KATASTRO-ONDORIOETARAKO, ONDASUN JAKIN BATZUK HIGIEZIN GISA KALIFIKATZEKO BEREZITASUNAK

5. artikulua. Pro indiviso dauden trastelekuak eta aparkalekuak ondasun higiezintzat jotzeko baldintzak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera, pro indiviso dauden trastelekuak eta aparkalekuak ondasun higiezintzat joko dira katastroaren ondorioetarako baldin eta elementuok titular baten erabilera eta luperketa eskusibo eta iraunkorrera atxikita badaude, haien deskripzio zehatza jasotzen duen eskritura publiko baten bidez.

Haiei buruzko deklarazioari erabilera eta luperketa egiaztatzeko eskritura publikoak erantsi behar zaizkio, bai eta deklarazioak ukitutako trasteleku eta aparkaleku guztien kokapena deskribatzen duen plano ere.

5. bis. artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

1. Katastroan sartzeko, ondasun higiezin bakartzat hartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat ezaugarri bereziko ondasun higiezin gisa kalifikatu daitekeen multzo konplexua, kontuan

hartu gabe partzela batek edo gehiagok osatzen duten, edo udal-mugarte batean baino gehiagotan dagoen arren.

Hori dela eta, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinatarako erreferentzia berezia izango du, apartatu honen 5. puntuari azaltzen denez.

Ez dira halako ondasuntzat hartuko hondakin-biltegi isolatuak, ez eta eraikuntza nagusia dagoen partzeletatik kanpoko kanalak edo garraio-hodiak eta bestelako eroanbideak ere, salbu eta hurrengo apartatuan xedatutakoak..

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko Foru Arauaren 9. artikuluekin bat, beherago zehaztutakoak ezaugarri bereziko ondasun higiezinatzat jotzen dira, erabilera bereziko multzo konplexua eratzeagatik eta artikuluko 1. zenbakiko gainerako baldintzak betetzeagatik. Hona hemen ondasunok:

- A taldea. Honako ondasun higiezin hauek osatzen dute taldea:

A.1. Energia elektrikoa ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak. Baina energia hidroelektrikoa ekoizteko ondasun higiezinak kasu batean baino ez dira sartuko talde honetan: atal honetako B taldean ez daudenean eta 10 MW-ko potentzia instalatu gainditzeko dutenean. Azken kasu horretan, ondasunaren parte izango dira partzeletatik kanpo dauden kanal, garraio-hodi eta eroanbideak ere —urtegia eta presa, barne—, baldin eta energia hidroelektrikoa lortu edo ekoizteko jarduerak garatzeko beharrezkoak badira.

Beste zentral batetik datorren emaria berrerabiltzen duten eta eroanbideen bidez lotuta dauden edo urtegi bereko ura erabiltzen duten zentral hidroelektrikoak ezaugarri bereziko ondasun berekoak direla jotzen da.

A.2. Gasa ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak. Banaketaren barruan, jarduerak hauek sartzen dira: gasa aztertutegitik ateratzea eta birgasifikatzea, edo elementu likidoak elementu gaseoso bihurtzea eta likidotzea, betiere jardueren bidez azkeneko banaketa egiten bazaie hirugarren batzuei kanalizazio bidez.

A.3. Petrolioaren produktu finduak ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak.

- B taldea. Talde honetan sartzen dira azaleko urtegiak —ohea edo hondoa, barne—, presa handiak, energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralak, ur-jauziak eta ekoizpen-prozesuarekin lotutako gainerako eraikuntzak; eta partzeletatik kanpo dauden kanal, garraio-hodi eta eroanbideak, baldin eta energia hidroelektrikoa lortu edo ekoizteko jarduerak garatzeko beharrezkoak badira eta presa handiek berezko duten dimentsioa edo ura bildu eta husteko gaitasuna badute araudi sektorialean xedatutakoarekin bat. Salbuetsita geratzen dira, betiere, ureztapenerako soilik direnak.

Instalazio bat presa handitzat jotzeko, haren dimentsioei begiratu behar zaie; gutxienez 15 metro garai izan behar du; edo, 10 eta 15 metro bitarteko garaiera izanik, hektometro kubiko batetik gorako ur-biltzeko ahalmena izan behar du. Presaren garaiera zimentuaren maila baxuenaren eta egitura erresistentearen maila altuenaren arteko sestra-diferentzia da, kontuan hartu gabe eskuareak, iragazgaizte-pantailak, pitzaduren betegarriak edo antzeko elementuak.

- C taldea. Autobideak, errepideak eta tunelak sartzen dira talde honetan, betiere haietan baimenduta badago ordainsaria ezartzea legeria sektorialarekin bat.
- D taldea. Honako ondasun higiezin hauek osatzen dute taldea:

D1. Aireportuak; legeria sektorialean hala definitutakoak hartuko dira halakotzat.

D2. Merkataritzako portuak.

3. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 9.2.e artikuluekin bat, ezaugarri bereziko ondasun higiezin izango da beste edozein ondasun higiezinaren multzo, baldin eta haren ezaugarri bereziengatik modu kolektiboan balioztatu ezin den eta/edo ezaugarri arruntekotzat jo ezin den multzo espezializatua osatzen badu.
4. Aurreko zenbakien arabera ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatu behar diren ondasunak partez Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo daudenean, ondasunok lurralde historiko horretan okupatzen duten azalera besterik ez da sartuko katastroko datu-basean.
5. Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinatarako erreferentzia berezia —artikulu honen 1. apartatua aipatua— eremu hauek osatuko dute:

	EBOH Mota	Udaler. Kod.	Udaler. Kop.	Laburdura
Posizio Kop.	2	3	2	4

EBOH MOTA	
1E	Zentral termikoak
1G	Zentral birgasifikatzaileak
1R	Petrolio-findegia
1H	Produktzio hidroelektrikoa
1P	Parke eolikoak
2P	B taldeko presak
3A	Ordainpeko autobideak
3T	Ordainpeko tunelak
4A	Aireportuak
4P	Merkataritzako portuak

- Udaler. Kod. EBOHak azalera edo luzera handiena duen udalerriaren kodea.
- Udaler. Kop. EBOHak okupatutako udalerrien kopurua.
- Laburdura. EBOHaren izendapenaren laburdura.

II. TITULUA

KATASTROAREN KUDEAKETA

6. artikulua. Katastroaren kudeaketa.

Katastroaren kudeaketa izaera ezberdineko zenbait eragiketa eta administrazio-jarduketaren multzoa da, beharrezkoak guztiak ere Higiezinaren Foru Katastroa eratu, mantendu eta berrikusteko, bai eta bertan sartutako datuak egoki erabiltzeko ere. Eta kudeaketa hori guztia Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauan ezarritako baldintzetan eta bertan aurreikusitako prozeduren bidez egin behar da.

I. KAPITULUA

KATASTROKO ALDAKETAK DEKLARATZEKO PROZEDURA

7. artikulua. Katastroko aldaketak deklaratzeko epea.

1. Notario aurrean formalizatu aurretik eta, edonola ere, aldaketa gertatzen denetik hilabete natural bi igaro aurretik, honako hauek Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Katastro eta Balorazio Zerbitzuan deklaratu behar dira, edo kasuan kasuko udalerriko katastroaren kudeaketa eskuordetuta daukan erakundean:
 - a) Eraikin berriak egitea.
 - b) Lehendik dauden eraikinak zabaltzea edo guztiz edo erabat birgaitzea edo eraberritzea.
 - c) Zatiketa horizontalak.
 - d) Ondasun higiezinaren banantze, zatiketa, eransketa edo elkarketak.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 15. artikuluan aipatzen diren gainerako aldaketak kasuan kasuko ondasun higiezinaren edo eskubideen katastroko titularrek deklaratu beharko dituzte, epe hauetan:
 - a) Aldaketa fisiko edo ekonomikoak direnean, aldaketa horiek gertatu edo baimentzen diren hila hila natural bi igaro aurretik deklaratu behar dira.

Horretarako, hilabete biko epea hasiko da zenbatzen edo kasuan kasuko aldaketa fisikoa egiteko beharrezko obrak edo lanak amaitu eta hurrengo egunetik aurrera edo higiezinaren aldaketa fisikoa ez dakarren erabilera edo xede aldaketa baterako administrazio-baimena eman eta hurrengo egunetik aurrera.
 - b) Ondasun higiezinaren jabetza eskualdatzean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 10. artikuluan jasotako eskubideetako edozein eratzean edo iraungitzean dautzan aldaketa fisikoak direnean, kontuan hartu behar diren epeak dira, hain zuzen, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan zerga horiek likidatzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko daudenak.

8. artikulua. Deklarazioekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra.

1. Katastroko deklarazio guztiak katastroko aldaketen deklarazioaren eredu formalizatuko dira; Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduz onartzen da eredu hori.
2. Katastroko deklarazio guztiak deklaratzaileraren edo, hala denean, haren ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo atzerriarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) adierazi behar da.

Deklarazioak ordezkariaren bidez aurkeztu direnean, aurrekoaz gainera, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
3. Katastroko aldaketa egiaztatzen duen agirian haren data eta hura sorrarazten duen negozio juridikoa adierazi behar dira. Agiri publiko bat bada, aurrekoaz gainera espediente-zenbakiaren eta epaitegi edo administrazio jardulearen identifikazioa jaso behar da, edo protokolo-zenbakia eta notario eskueslea.
4. Notario aurrean formalizatu aurretik deklaratu behar diren aldaketen kasuan, agiri publikoan bideratuko den eskrituraren zirriborroa ere aurkeztu behar da.
5. Unean-unean aitortzen den katastroko-aldaketa egiaztatzen duen agirian ez badago jasota ondasun higiezinaren identifikatzailea edo aldaketa horrek ukitutako ondasun higiezina edo higiezinak identifikatzeko aukera ematen duen katastroko bestelako erreferentziarik,

orduan, erreferentzia horiek jasotzen dituen katastro-ziurtagiria aurkeztuko da, edo ondasun higiezinaren gaineko zergaren azken ordainagiria.

9. artikulua. Deklarazioekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio espezifikoa.

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren agiriez gainera, katastroko titularrak formatu elektronikoan aurkeztu behar ditu jarraian adierazten diren agiriak, obraren amaierari buruzkoak betiere. Dokumentazio grafikoa CADeko DWG, DXF, DGN, SHX, SHP, PRJ, edo DFB formatuetan aurkeztu behar da, zehaztasun egokiarekin, edo aurreko horietatik abiatuta informatikoki sortutako PDF fitxategi batean. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu behar dira eta gainerako agiriak, berriz, PDF formatuan.

Dokumentazioa aurkezteko euskarria CD bat, DVD bat edo USB memoria bat izan ahal izango da; horrez gainera, bide telematikoa erabili ahal izango dituzte zergadunek, abian jartzen direnean.

A) Eraikin berriak egitea, lehendik dauden eraikinak zabaltzea edo guztiz edo erabat birgaitzea edo eraberritzea, edo zatiketa horizontalak egitea

- a) Eraikinak partzelaren barruan duen kokapen-plano orokorra eta xehatua, behin betikoak, katastroko kartografian islatuta eta UTM koordinatuen bidez geoerreferentziatuak, ETRS 89 erreferentzia-sisteman edo erregelamenduz ezarritako sisteman.
- b) Solairuen banaketa-planoak, eginiko zatiketa horizontalaren ondoriozko lokalak adierazten dituztenak, halako zatiketarik egin bada. Titular baten erabilera eta luperketa eksklusibo eta iraunkorrari atxikitako trasteleku eta/edo aparkalekuak pro indiviso daudenean, planoetan trasteleku eta/edo aparkalekuen deskripzio grafikoa ere jasoko da.
- c) Altxaeren eta sekzio bertikal adierazgarrien planoak.
- d) Eraikuntzaren kalitateei buruzko memoria.
- e) Obra-amaierako ziurtagiria, teknikari eskudunak sinatua.
- f) Eraikinaren argazki adierazgarriak.
- g) Hala behar denean, edozein araubidetako etxebizitza babestuen behin-behineko kalifikazioaren kopia (babes ofizialeko etxebizitzak, prezio tasatukoak...).
- h) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan izan dezakeen hobariaren edo salbuespenaren eskabidea; kasu horretan, obra-hasierako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

Lehendik dauden eta Higiezinaren Katastroan alta emanda dauden eraikinen zatiketa horizontala deklaratzeko denean, nahikoa izango da aurreko artikuluko 4. zenbakian aipatutako eskrituraren zirriborroa aurkeztea.

«Eraikitzen ari den obra berriaren deklarazioa»ren eskritura publikoan dagoeneko formalizatu den eraikuntza berri bat deklaratzeko denean, eskritura horren kopia batek eta notario aurrean formalizatutako den «obra-amaierako akta»ren zirriborro batek ordeztuko dute aurreko artikuluko 4. zenbakian aipatutako eskrituraren zirriborroa.

B) Ondasun higiezinak banandu, zatitu, elkartu edo eransten badira.

- Eskala-planoak, katastroko kartografian islatuta eta teknikari eskudunak sinatuak, hasierako egoerari eta eragiketa edo jarduketaren emaitza jasotzen duen amaierako egoerari buruzkoak.

Partzelak direnean, planoak UTM koordinatuen bidez geoerreferentziatuta egon behar dira, ETRS 89 erreferentzia-sisteman edo erregelamenduz ezarritako sisteman.

- Landa-partzelak direnean, udal lizentzia.

C) Eraikuntza partez edo guztiz eraitsi edo botatzen bada.

- Eraispena egiaztatzeko agiria: teknikari eskudunak emandako eraispén-ziurtagiria, udalaren txostena edo agiri baliokide bat izan daiteke.
- Eraikuntza partez eraitsi behar denean, hasierako egoeraren eta eraispénaren ondoriozko egoeraren deskripzio grafikoa, bai eta azalera berriak zehazteko beharrezko informazioa eta zehaztasuna jasotzen dituzten eskala-planoak ere.

D) Landaketa eta aprobetxamendua aldatzen bada.

- Landaketa- edo aprobetxamendu-aldaketaren egiaztakaria: administrazio-baimena, proiektua, ziurtagiri tekniko edo agiri baliokide bat izan daiteke, baina beti egiaztatuko beharko da zer egunetan amaitu diren egindako lanak.
- Landaketaren edo aprobetxamenduaren aldaketak partzela edo azpipartzela baten edo batzuen parte bati soilik eragiten badie, aldaketaren ondoriozko egoeraren deskripzio grafikoa, bai eta azalak kalkulatzeko eskala-planoak ere.

E) Ondasun higiezinaren xedea edo erabilera aldatzen bada.

- Erabilera aldaketa egiaztatzeko agiria: administrazio-baimena edo -lizentzia, eskritura publikoa, Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, udal ziurtagiria edo agiri baliokide bat izan daiteke.
- Hala badagokio, obra-amaierako ziurtagiria, teknikari eskudunak sinatua.
- Proiektu tekniko, baina, halakorik ez badago, aldaketaren ondoriozko egoeraren deskripzio tekniko eta higiezinaren hasierako zein amaierako egoeraren eskala-planoak.

F) Jabetza eskuz aldatzen bada eta administrazio-emakida, azalera-eskubidea edo gozamen-eskubidea eratu edo azkentzen bada.

- Jabetza eskuz aldatu dela edo administrazio-emakida, azalera-eskubidea edo gozamen-eskubidea eratu edo azkendu dela egiaztatzeko agiria: eskritura publikoa, kontratu pribatua, epai judiziala, administrazio-agiria, Jabetza Erregistroaren ziurtagiria edo besteren bat.
- Ondasun higiezin baten parte baten gaineko azalera-eskubide bat edo administrazio-emakida bat eratzen bada, administrazio-emakida edo azalera-eskubide horren eraginpeko elementuak eta/edo azalera islatzen dituen dokumentazio grafikoa, bai eta azalera berriak zehazteko beharrezko informazioa eta zehaztasuna jasotzen dituzten eskala-planoak ere.

10. artikulua. Administrazio-jarduketak eta ebazpena emateko epea.

1. Erregelamendu honen 7. artikuluko 1. zenbakian aipatzen den aurretiazko deklarazioa egin behar den kasuetan, deklarazioa jaso ondoren, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo katastroaren kudeaketa eskuordetuta daukan erakundeak egin beharreko inskripzioak eta aldaketak egingo ditu Katastroan. Gero, horiek denak egin ondoren, titularrari edo notarioari -kasu bakoitzean dagokionari- jakinaraziko dizkio aldaketak eragindako ondasun higiezinaren

elementu bakoitzari esleitutako zenbaki finkoen edo katastroko erreferentzien eta azaleren zerrenda.

Horretarako, azalera eraikia izango da katastro-azalera edo Katastro eta Balorazio Zerbitzuak eraikin baten duten elementuei esleitutako azalera, eta hiri-ondasun higiezinak balioztatzeko une bakoitzean indarrean dauden arau teknikoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

2. Titularrari edo notarioari jakinaraziko zaio aurreko zenbakian aipatutako zerrenda, aurreko 8. eta 9. artikuluetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta egutegiko 30 eguneko epearen barruan, betiere aurretik egon ez bada orain arte ezezaguna izan den aldaketarik.
3. Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea bada, titularrari edo, hala badagokio, notarioari errekerimendua egingo zaio egutegiko 15 eguneko epean zuzen dezan, eta ohartaraziko zaio 2. zenbakiko epea etenda geratzen dela eskatutako dokumentazioa aurkeztu arte.
4. Titularrak bere deklarazioan kontrakoa esaten ez badu, ulertuko da Katastro eta Balorazio Zerbitzuari edo erakunde eskuordetuari baimena ematen diola aurkeztutako eskritura publikoaren zirriborroa egin duen notarioari zuzenean jakinarazteko artikulua honen lehenengo zenbakian aipatutako zerrenda.
5. Ondasun higiezinetan 7. artikuluko 2. zenbakian aipatzen direnen moduko aldaketak gertatzen direnean, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo katastroaren kudeaketa eskuordetuta daukan erakundeak, ondasun horien katastroko titularrak aurkeztutako agiriak ikusita, dagozkion inskripzioak edo aldaketak egingo ditu katastroan eta kasu bakoitzean dagozkion katastro-balioa esleituko du.

11. artikulua. Katastroko identifikazioa notario aurrean egiaztatu beharra.

1. Erregelamendu honen aurreko artikuluan aipatutako zerrenda zenbaki horretan ezarritako epean eskura duen katastroko titularrak dokumentu publikoa behin betiko formalizatu behar duen notarioaren aurrean aurkeztu beharko du zerrenda hori, hurrengo artikuluan ezarritako ondorioetarako.
2. Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo erakunde eskuordetuak ez baditu betetzen ezarritako epeak, titularra salbuetsita egongo da aurreko zenbakian ezarritakoa betetzetik; kasu horretan, nahikoa izango da jatorrizko finken zenbaki finkoa edo katastroko erreferentzia aurkeztea, planoarekin edo proiektuarekin batera, kasuan kasuko eragiketarako beharrezkoa balitz, egindako aldaketak erakustearren.

12. artikulua. Notarioen betebeharrak.

1. Erregelamendu honen 7. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren aldaketak jasotzen dituzten dokumentu publikoak eskuesten dituzten notarioek ondasun higiezinak identifikatzailea jasoko dute, kasuan kasuko higiezinak deskripzioaren barruan. Gainera, ondasun higiezinak osatzen dituzten elementuen zerrenda jasoko dute, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak esleitutako azalerekin eta zenbaki finkoekin edo katastroko erreferentziekin batera.

Erreferentzia eta azalera horiek erregelamendu honen 10. artikuluan aipatutako zerrendan jasota daude.

Notarioek zerrenda hori erantsi ahal izango diote formalizatzen duten dokumentu publikoari; kasu horretan, egiaztatu beharko dute dokumentu publikoan jasotako ondasun higiezinak elementuak bat datozen Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo erakunde eskuordetuak identifikatutako katastroko elementuekin.

2. Dagozkion dokumentu publikoak formalizatu ondoren, eskuespena eman duen notarioak dokumentuaren kopia soila bidaliko dio Katastro eta Balorazio Zerbitzuari edo erakunde eskuordetuari, formalizatu eta 15 eguneko epearen barruan.

3. Katastro eta Balorazio Zerbitzuan edo erakunde eskuordetuan aurkeztutako eskritura publikoaren zirriborroak, formalizatu aurretik, aldaketarik badu eta aldaketa horrek eragina badu erregelamendu honen 10. artikuluan adierazitako zerrendako datuetan, notarioak eskuetsi beharko den dokumentu berriaren kopia bidali beharko dio Katastro eta Balorazio Zerbitzuari edo erakunde eskuordetuari, katastroan dagozkion zuzenketak egin ditzan.
4. Zuzenketak egin ondoren, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo erakunde eskuordetuak, zirriborro berria jaso eta gehienez ere egutegiko 30 eguneko epean, notarioari bidaliko dio kasuan kasuko ondasun higiezinaren elementuei esleitutako zenbaki finko edo katastroko erreferentziak eta azalerak jasotzen dituen zerrenda zuzendua, artikuluko honen 1. zenbakian ezarritakoaren arabera formalizatzen den behin betiko dokumentu publikoan sartzeko.
5. Erregelamendu honen 7. artikuluko 2. zenbakian aipatutako aldaketei buruzko deklarazioen kasuan edo aurreko 11. artikuluko 2. zenbakian aipatzen dena gertatzen bada, notarioak formalizatutako eskrituraren kopia soila helaraziko dio, planoarekin edo proiektuarekin batera -interesdunak halakorik aurkeztuz gero-, Katastro eta Balorazio Zerbitzuari edo katastroaren kudeaketa eskuordetuta daukan erakundeari, azken horrek zenbaki finko berriak edo katastroko erreferentziak eman ditzan.

Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo erakunde eskuordetuak zenbaki finko edo katastroko erreferentziak jakinarazi behar dizkie, bai eragindako finkaren katastroko titularrei, bai eta agiri publikoa eskuesten duen notarioari ere, matrizean jasota utzi ditzan, eginbide baten edo finkaren deskripzioaren albo-ohar baten bidez.

Halakoetan, notarioak, interesdunek eskaturik, berak aurretik eman eta berari aurkeztu zaion kopian transkribatuko du matrizeko oharra edo eginbidea.

13. artikulua. Behin betiko ebazpena.

Katastroko aldaketei buruzko aurretiazko deklarazioen kasuan, azkenean formalizatutako eskrituraren kopia soila -aurreko 12. artikuluko 2. zenbakian aipatzen dena- jaso ondoren, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak edo erakunde eskuordetuak katastroko inskripzioa eta balioztatzea egingo ditu, prozedura behin betiko ebazteko, eta ebazpena titularrari jakinaraziko dio.

II. KAPITULUA KATASTROKO ALDAKETAK KOMUNIKATZEKO PROZEDURA

14. artikulua. Informazioa eman behar dutenak.

Toki-erakundeek eta gainerako administrazio jarduleek, udalek, Aldundiaren sailek edo bestelako administrazio publikoek zein notarioek eta jabetza-erregistratzaileek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 34. eta 35. artikuluetan jasotzen den laguntzeko betebeharra betetz, katastroari bidali behar diote katastroko aldaketa guztiei buruzko informazioa.

Komunikazio horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritako zehaztapen eta baldintzetan helarazi behar dira.

I. ATALA UDALEN KOMUNIKAZIOAK

15. artikulua. Komunikatu beharreko egitate, egintza edo negozioak.

1. Udalek komunikatu egin behar dituzte Katastroan alta, baja edo aldaketa bat sor lezaketen egitate, egintza edo negozioak, baldin eta udal lizentzia edo baimena jaso duten jarduketan ondoriozkoak badira.

2. Hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 17. artikuluko 1. zenbakian ezarritako komunikazio-prozedurak honako egitate, egintza edo negozio hauek izan ditzake xede:
 - a) Eraikin berriak egitea.
 - b) Dauden eraikinak handitu, eraberritu edo birgaitzea, eraitsi edo lurreratzea, hala zati batean nola osorik. Ez dira halakotzat joko eraikinen kontserbazio edo mantentze hutserako diren obrak edo konponketak; halaber ez dira aldaketatzat joko soilik eraikinen ornamentazio- edo dekorazio-ezaugarriei eragiten dietenak.
 - c) Eraikinen edo instalazioen erabilera edo xedea aldatzea.
 - d) Birpartzelazioak, lur-zatien bateratzeak, mugaketa administratiboak, nahitaezko desjabetzeak eta hirigintza-plangintza eta -kudeaketako egintzak.
3. Higiezinaren Foru Katastroaren eta kasuan kasuko udalaren artean sinatutako lankidetzaren bidez zehaztuko da zer eremu hartuko duen prozedura honek, eta aurreko zenbakietan jasotako kasu guztiak edo batzuk hartu ahal izango ditu.

16. artikulua. Komunikatzeko betebeharraren norainokoa eta edukia.

1. Aurreko zenbakian aipatutako egitate, egintza edo negozioak bakarrik komunikatu behar dira baldin eta haietarako, beren-beregi, lizentzia hauetakoren bat ematen bada:
 - a) Mota guztietako eraikinak eta instalazioak eraikitzeke obra-lizentzia.
 - b) Mota guztietako eraikinak eta instalazioak zabaltzeko obra-lizentzia.
 - c) Mota guztietako eraikinen eta instalazioen egiturari eragiten dioten aldaketa, berritze-lan edo zaharberritzeetarako lizentzia.
 - d) Eraikinak eraisteko lizentzia.
 - e) Eraikinen eta instalazioen erabilera aldatzeko lizentzia.
 - f) Birpartzelazioak, lur-zatien bateratzeak, mugaketa administratiboak, nahitaezko desjabetzeak eta hirigintza-plangintza eta -kudeaketako egintzak egiteko lizentzia edo baimena.
 - g) Aplikatu beharreko legeriaren arabera aurrekoen baliokidea den beste edozein lizentzia edo baimen.
2. Artikulu honetan aipatzen diren komunikazioek haiek izapidetzeko beharrezkoa den informazio grafikoa eta alfanumerikoa jaso behar dute, erregelamendu honen 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoarekin bat. Informazioa telematikoki hornituko da, eta udalekin sinatutako lankidetzaren bidez ezarriko da zer metodo erabiliko den.
3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 16. artikuluko 4. zenbakiko b) letran ezarritakoaren arabera, udalak komunikatu egiten baditu artikulu honetan deskribatutako aldaketak, orduan katastroko titularrak ez dizkio aldaketa horiek Katastroari deklaratu beharko, baldin eta ez badute ondasun higiezinaren deskripzioaren aldaketa grafikorik eragiten.

17. artikulua. Komunikatzeko epea.

Udalek aldaketa gertatzen denetik hilabete biko epean bidali behar dituzte Higiezinaren Foru Katastrora komunikatu beharreko egitate, egintza edo negozioei buruzko datuak.

II. ATALA

NOTARIOEN ETA JABETZA-ERREGISTRATZAILEEN KOMUNIKAZIOAK

18. artikulua. Komunikatu beharreko egitate, egintza edo negozioak.

1. Notarioek edo jabetza-erregistratzaileek Katastroan alta, baja edo aldaketaren bat eragin dezaketen egitate, egintza edo negozioak komunikatu behar dituzte, haiek eskuetsi edo inskribatutako dokumentuetan jasotakoak.
2. Jabetza Erregistroan inskribatuta dauden jarduketak badira, informazioa komunikatu behar da baldin eta jasota badago jarduketak eragindako higiezinaren katastroko erreferentzia, eta jasota badago, gainera, jarduketa horiek katastroko kartografian identifikatzeko aukera ematen duen planoak.

III. KAPITULUA

DESADOSTASUNAK ONGITZEKO ETA ZUZENTZEKO PROZEDURAK

19. artikulua. Tolerantzia teknikoa.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, tolerantzia teknikoaren marjina da gehienez onar daitekeen bariazioa katastroko datu-basean jasota dagoen azaleraren eta partikular batek eskatuta edo ofizioz Administrazioaren aldetik hari erantsi zaionaren artean.

Tolerantzia-marjina eragiketa honen bidez zehaztuko da:

- $MT = (\text{Katastroko azalera} - \text{Azalera berria}) / \text{Katastroko azalera}.$

Tolerantzia-marjina %5 izango da.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kasuan, katastro-balioa finkatzeko arau teknikoetan zenbait berezitasun ezarri ahal izango dira, tolerantzia teknikoaren marjinari dagokionez.

IV. KAPITULUA

BALIOZTATZEA

20. artikulua. Partaidetza Organoa.

1. Lurzoruaren zedarriztapena eta balio-txostenak -Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 27. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den bezala- Bizkaiko Foru Aldundiak egingo ditu, ukitutako udalekin lankidetzan eta Partaidetza Organoaren bitartez.
2. Partaidetza Organoaren burua katastroaren arloan eskuduna den Ogasun eta Finantza Saileko zuzendari nagusia izango da, eta honako hauek izango dira organo horren kideak:
 - a) Foru Aldundiaren aldetik:
 - Katastro eta Balorazio Zerbitzuko burua.
 - Katastro eta Balorazio Zerbitzuko teknikari bi.
 - b) Udalen aldetik:
 - Ukituriko Udalaren ordezkari bat.
 - Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) ordezkari bat.

Partaidetza Organoko Idazkari gisa Foru Aldundia ordezkatzan duten bi teknikarietako batek jardungo du.

21. artikulua. Balio-txostenak prestatzeko eta onesteko prozedura.

1. Balio-txostenak agiri batzuk dira, non hauek jasotzen diren: irizpideak, balio-eremuak, balioztatze arau teknikoak, dagokion lurzoruaren zedarritzapena eta ondasun higiezinaren katastro-balioak finkatzeko behar diren gainerako elementu guztiak.
2. Txostenetan zehaztuko da zer udalerriri eragiten dieten eta zer ondasun gainean dituzten ondorioak: hiri-ondasun higiezinak, landa-ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak. Horretarako, txostenak lotutako lurzoruaren zedarritzatzea zehaztuko du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritako lurzoruaren sailkapenaren arabera.
3. Halaber, txostenetan erantsiko dira une bakoitzean ondorio fiskaletarako indarrean dauden balioztatze arau teknikoak, zeinetan behar bezala arrazoituta egin ahal izango diren katastro-balioa kalkulatzeko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak.
4. Balio-txostenetan udalerriaren zonakatze bat jasoko da, merkatu-azterketa batean oinarritua, zeinean hauek adieraziko diren: batetik, lurzoruak eremu bakoitzerako dituen oinarritzko balioak, eraikitze gaitasunaren eta urbanizazio-mailaren arabera; eta, bestetik, eraikinen oinarritzko balioa, haien moten arabera, kontuan hartuta bai eraikinok egun duten kostua bai haien adin, erabilera eta eraikuntza-motaren arabera dagozkien balorazio- eta zuzenketa-koefizienteak.
5. Balio-txostenak Bizkaiko Foru Aldundiak prestatuko ditu, ukitutako udalekin lankidetzan, Partaidetza Organoaren bitartez.

Balio-txostenak onartu aurretik, nahitaez, udal interesdunek haiei buruzko txosten ez-loteslea eman behar dute, eta hamabost egun naturaleko epea dute bidezko deritzena txosten arrazoitu batean jasotzeko.

Epe horretan txostenik ematen ez bada, aldekoa dela ulertuko da eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du.

Udalaren txostena eta Foru Aldundiaren proposamenak kontrajarriak badira, erakunde bien arteko akordioa lortzeko epea irekiko da, hilabete biko, gehienez ere. Epe horren barruan akordiorik lortzen ez bada, prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituko du. Dagokion udalaren txostena ikusita, katastroaren arloan eskuduna den Ogasun eta Finantza Saileko zuzendari nagusiak ebazpena emango du, lurraldeen artean egon behar den koordinazioa kontuan hartuta.

6. Katastroaren arloan eskuduna den Ogasun eta Finantza Saileko zuzendari nagusiak udalerriri baterako balio-txostena onartu ondoren, balio-txostenak onartzeari buruzko eta jendaurrean erakusteko iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta dagokion udalean, balio-txosten horiek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurre-aurreko urtean; iragarkian adieraziko da nola eta zenbat denbora egongo den ikusgai -hamabost egun natural, gutxienez-. Halaber jarriko dira iragarkiak Bizkaiko Lurralde Historikoko zabalkunderik handiena duten egunkarietan eta Interneteko atari honetan: <http://www.bizkaia.eus>.
7. Balio-txostenen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke, edo, bestela, zuzenean erreklamazio ekonomiko-administratiboa; horretarako epeak errekurtso horiei buruzko arautegi erregulatzailean ezartzen dira. Errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeak ez du etengo aurkaratutako egintza bete beharrekoa izatea.
8. Bizkaiko Foru Aldundiak berrikusi egingo ditu balio-txostenak, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira eta, edozelan ere, zortzi urterik behin.

22. artikulua. Katastro-balioen esleipen eta zehaztapen indibidualizaturako prozedura.

1. Balio-txostenak argitaratu ondoren, Katastro eta Balorazio Zerbitzuak banan-banan zehaztuko du ondasun higiezin bakoitzak izango duen katastro-balioa, balio-txostenak eta dagozkion koefiziente zuzentzaileak aplikatzearen ondoriozkoa. Bada, gero, balio horiek banan-banan jakinarazi behar zaizkio balio-txostenak onartzean titular gisa agertzen den pertsona bakoitzari, balioek ondorioak sortuko dituzten urtearen aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen.
2. Katastro-balioen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jar daiteke, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan jasotako zehaztapen eta baldintzetan.

22. bis. artikulua. Udal mugarte batean baino gehiagotan dauden ezaugarri bereziko ondasun higiezinak katastro-balioa zehazteko irizpideak.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin bat udal mugarte batean baino gehiagotan badago, lurzorua balioa banatu egingo da, udal mugarte bakoitzean duen azaleraren portzentajea kontuan hartuta, eta zati bakoitzari bertan dauden eraikuntzen eta gainerako berezitasunen balioa esleituko zaio.

23. artikulua. Balio-txosten berriak onartzetik ateratzen diren katastro-balio indibidualizatuak jakinaraztea.

1. Balio-txosten berriak onartzetik ateratzen diren katastro-balioen jakinarazpena modu hauetan egin daiteke: edo katastroko titularra horretarako zehazten diren bulego publikoetan agertuta, edo bitarteko elektronikoak zein ez-elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpen pertsonal eta zuzenaren bidez.

Katastroko titular berari dagozkion ondasun higiezinak badira, balio indibidualizatu horiek jakinarazpen batean edo gehiagotan batu daitezke, baldin eta eraginkortasunagatik hala egitea komeni bada.

2. Honako katastroko titular hauek, nahitaez, behartuta daude jakinarazpenak bitarteko elektronikoaren bidez jasotzera, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez:

- a) Pertsona juridikoak.
- b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden pertsona fisikoak.
- c) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, toki-administrazioa osatzen duten erakundeak, organismo publikoak, unibertsitate publikoak, independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia duten eta sektore edo jarduera jakin baten gaineko arauketa edo kanpoko kontrola egiteko eginkizunak legez esleituta dituzten zuzenbide publikoko erakundeak, administrazio publiko bati edo batzuei lotutako zuzenbide publikoko erakundeak edo haren mendekoak direnak, eta partzuergo administrazioak.

20 egun natural igaro badira eta katastroko titularra ez bada jakinarazpenaren edukira sartu, ulertuko da atzera botatzen duela, baina egintzat joko da -lege-ondorio guztietarako-, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 109. artikuluan ezarritakoa dela bide.

3. Jakinarazpena bitarteko elektronikoaren bidez egin behar ez zaien katastroko titularrek eskubidea dute jakinarazpena egoitza elektronikoan ere eskuratu ahal izateko, baina, edonola ere, titular horiek jakinarazpena ez badute eskuratzen bitarteko elektronikoak erabiliz, jakinarazpen pertsonal eta zuzena egingo zaie, kontuan hartuta zer ezartzen den Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan.

Katastroko titularrari ezin izan bazaio jakinarazpena egin, Zerga Administrazioari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, eta jakinarazpena birritan saiatu ondoren interesdunak adierazitako zerga-egoitzan -edo behin bakarrik, hartzailea ezezaguna balitz-, aurreko guztia jasota utziko da espedientean, eta azalduko da zer inguruabarretan egin diren jakinarazpen-saiakerak.

Kasu horretan, hitzordua emango zaio interesdunari jakinarazpena bertaratuta jasotzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan -behin- eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jarriko diren iragarkien bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 110. artikuluan zehazten diren ondorio eta ondoreekin.

4. Baldin eta, bitarteko elektronikoak zein ez-elektronikoak erabiltzearen ondorioz katastro-balio beraren jakinarazpen bat baino gehiago egiten bada, ulertuko da jakinarazpenaren ondoriozko efektu juridiko guztiak (kasuan kasuko errekurtsuak jartzeko epearen hasiera barne) zuzen egindako lehenengo jakinarazpena egiten denetik sortzen direla.

24. artikulua. Identifikazio- eta sinadura-bitartekoak.

Katastroa kudeatzeko eta katastro-balioak berrikusteko prozedurekin lotutako betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio elektronikoari buruzko araudian ezarritako identifikazio- eta sinadura-bitartekoetako edozein erabili ahal izango dute katastroko titullarrek.

25. artikulua. Ordezkaritza-gakoa.

1. Katastro-balioak berrikusteko prozedurarekin lotutako izapideak betetzen laguntzeko, Administrazioak gako bat emango die katastroko titullarrei, titular horiek ordezkaritza hirugarren pertsona bati eman ahal izan diezaioten.

Ordezkaritza egiaztaturik geldituko da ordezkaritza-gakoaren titullarra ez den beste pertsona batek erabiltzen duenean gako hori.

Ordezkaritza eman zaion pertsonaren kasuan, ordezkaritza-gakoak 5 urteko balioa izango du, lehenengo aldiz baliatzen denetik; denbora horretan, pertsona horrek katastroko titullarren ordezkaritza gisa erabili ahal izango du, gakoa ematea eragin duen katastro-balioak berrikusteko prozedura dela-eta egin beharreko jarduketak egiteko.

2. Administrazioak katastroko titullarren bati ez badio ordezkaritza-gakorik ematen, administrazio horri eskatu ahal izango zaio gakoa, horretarako ezarriko diren kanalen bitartez.
3. Katastroko titullarrek aukera izango dute administrazioari eskatzeko artikulua honetan araututako gakoa inaktibatzeak berez ekarriko du haren bidez emandako ordezkaritza ere errebokatzea.